

Edateko ura gure planetan

Gai honekin zerikusia duten arloak

- NATUR ZIENTZIAK.
- GIZARTE ZIENTZIAK.
- MATEMATIKA.

HELBURUAK

- Lurrean dagoen edateko uraren proportzio txikiaz kontzientziatzea.
- Laborategiko materiala erabiltzea eta ahalik eta neurketarik zehatzenak egiten saiatzea.
- Zenbakiz adierazitako datuak grafiko bidez irudikatzea.

MATERIALAK

- ◆ 1.000 cm³-ko bi probeta
- ◆ 100 cm³-ko lau probeta
- ◆ Pipeta bat
- ◆ Ura (koloreztatua bada, hobe).

Jardueraren garapena


Hasteko, egin uraren zikloen eskema, erlazio guztiak adieraziz. Saiatu honako osagai eta prozesu hauek eskema horretan islatzen: ur-lurrina, euria, elurra, txingorra, hodeiak, ur iragazia, iturri eta lakuak, ibaiak, zingirik, itsasoak eta ozeanoak,

hondakin urak, hondakinak, gizakia, landareak, animaliak, transpirazioa, lurruntzea, fotosintesia, arnasketa, elikadura, nekazaritza eta industria.

Bigarrenik, begiratu datu hauei (*National Science Teachers Association* erakundeak 1991ko otsailean argitaratutakoak).

Lur planetako urari buruzko datuak

Itsaso eta ozeanoak
%97,2




Ur geza
%2,8

Ur geza guztiaren (%2,8) banaketa

Azaleko ura **%0,022**


Lur azpiko ura
%0,397

Airea eta lurzorua
%0,001



Polo eta glaziarrek
%2,380


Esperimentuko urratsak




1. Ipini litro bat ur koloreztatu probeta batean; eman dezagun horixe dela Lurreko ur guztia.




2. Atera probeta horretatik 28 cm³ eta ipin itzazu 1.000 cm³-ko beste probeta batean: horixe izango da planetako ur geza.




3. Ur geza horretatik, kendu 23 cm³ eta ipin itzazu 100 cm³-ko beste probeta batean: horixe da poloetako eta mendiko glaziarretako ura.



4. Geratzen diren 5 cm³-etatik, ipini 4 cm³ 100 cm³-ko beste probeta batean: lur azpiko ura da hori.



5. Geratzen den zentimetro kubiko horretatik ia guztia, ipini 100 cm³-ko beste probeta batean: horixe da Lurraren gainazalean dagoen ur erabilgarria.



6. Bota azken tantak beste probeta batean: horixe da airean eta lurzoruan dagoen hezetasuna, lurzoruko animalia txikien eta belarren bizigai dena.

Orain, osatu honako taula hau:

Lurreko ur guztia: 1.000 cm ³			
	kopuru osoaren %	cm³-tan (probeta)	ur gezaren %
Polo eta glaziarrek			
Lur azpiko urak			
Azaleko urak (lakuak, ibaiak...)			
Lurzoruko eta aireko hezetasuna			
Ur geza guztia			
Ur gazi guztia			

- Irudikatu aurreko datu horiek grafiko sektorialetan.
- Azaldu laborategian, ikusteko moduan, Lurrean dagoen uraren proportzio handi bat ur gazia dela eta izaki bizidunek erabili ahal dutena, aldiz, oso txikia dela.

Azkenik, saiatu honako galdera honi erantzuten:

Ura birziklatu egiten da; beraz, zergatik gara ur nahikorik izango ez ote dugun beldur?